

PROIEKTU HEZITZAILEA

Lege Organikoa

Tribucan proiektuaren helburuak lantzerakoan, kontuan hartu dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako printzipioak.

1. ‘Tribucan’ proiektuaren arabera, gizarte osoaren erantzukizuna da hezkuntza, eta haurtzarotik eta nerabezarotik ahaleginaren eta lanaren balioak sustatu behar dira arlo pertsonalean, akademikoan eta lanekoan arrakasta lortzeko.

Hezkuntza-balio horien sustapena tribu osoaren eginkizuna da. Horri dagokionez, legearen aitzinsolasean ezartzen da ahaleginaren printzipioa ezinbestekoa dela kalitatezko hezkuntza lortzeko, eta hezkuntza erkidegoko kide guztiei aplikatu behar zaiela. Horietako bakoitzak berariazko ekarpen bat egingen du. Familiek hertsiki lagundu beharko dute eta beren seme-alaben eguneroko lanean konpromisoa hartu beharko dute; konpromisoa hartu beharko dute, halaber, ikastetxeetako bizitzarekin. Ikastetxeek eta irakasleek ahaleginak egin beharko dituzte ikaskuntzarako ingurune aberats, motibagarri eta zorrotzak eraikitzeko. Hezkuntza administrazioek erraztasunak eman beharko dizkiete eskola erkidegoa osatzen duten guztiei beren eginkizunak bete ditzaten, eta horretarako behar dituzten baliabideak emanen dizkiete; aldi berean, konpromisoa eta ahalegina eskatuko dizkiete. Gizarteak, azken batean, hezkuntza sistema babestu beharko du eta aldeko ingurune bat sortu beharko du, bizitza osoan zehar prestakuntza pertsonala bideratzeko. Soilik konpromisoak eta ahalegin partekatua ahalbidetuko dute hain helburu zabalak lortzea.”

1. artikuluan Hezkuntzaren Lege Organikoak hezkuntzaren printzipioak ezartzen ditu:

- “Banakako ahalegina eta ikasleen motibazioa.” (g).
- “Hezkuntza administrazioek tokiko udalei laguntzea eta haiekin batera lan egitea hezkuntza politikaren plangintza eta ezarpena lortzeko.” (p)
- “Ikasleen, familien, irakasleen, ikastetxeen, administrazioen, erakundeen eta gizarte osoaren ahalegin partekatua.” (h)

2. Tribucan proiektua Europako Batasunak 2010. urterako ezarritako helburuen arabera diseinatu da; izan ere, helburu horiek izan dira nazioarteko ebaluazioak egiteko oinarria (PISA). Hartara, lagungarri gertatzen da ikastetxeetako ebaluazioetan emaitza hobekak lortzeko.

Horri dagokionez, Hezkuntzaren Lege Organikoak dio “Espainiako hezkuntza sistemak datozen urteetan bere jarduerak egokitu behar dituela Europako Batasuneko bere kideekin partekatzen dituen helburu horiek lortze aldera. Batzuetan, Espainiako

hezkuntzaren egoera hurbil dago hamarkada honen amaierarako helburu gisa finkatu denetik. Beste batzuetan, aldiz, aldea handia da. Espainiak Europako Batasunean parte-hartze aktiboa izateak nahitaezkoa egiten du hezkuntza mailak hobetzea, harik eta Europan duen tokiari egokitu arte; horrek, betiere, konpromisoa eta ahalegin argia eskatzen du, eta lege honek horixe ere bere egiten du.”

3. Tribucan proiektuak lagundu egin nahi du bizikidetasun baketsua, elkartasunezkoa eta demokratikoa lortzeko behar diren hezkuntza-balioen sustapenean, elkartasunezko ekimenak eskatzen dituzten egoera errealak ezagutzearen bidez.

Hezkuntzaren printzipioak eta xedeak izenburua duen I. kapituluko 1.c artikuluan, Hezkuntzaren Lege Organikoak honakoei buruz hitz egiten du: “Askatasun pertsonalak, erantzukizuna, herritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia bultzatuko dituzten eta edozein eratako bazterkeria gainditzen lagunduko duten balioak transmititzea eta praktikan jartzea”.

Xedeak izenburuko 2. artikuluan, honakoa dio legeak:

- “Bakearen aldeko prestakuntza, giza eskubideekiko errespetua, elkarrekin bizitzea, gizartearen kohesioa, herrien arteko lankidetzeta eta elkartasuna eta bizidunei eta ingurumenari errespetua izatea –bereziki oihan-eremuen balioari eta garapen iraunkorrari dagokienean– sustatuko duten balioak barneratzea.” (e)
- “Herritartasunaz baliatzeko prestatzea, bai eta bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalean parte-hartze aktiboa izateko ere, betiere jarrera kritikoarekin eta erantzukizunarekin, eta ezagutzaren gizartearen egoera aldakorrei egokitzeko gaitasunarekin.” (k)

4. Tribucan proiektuak ikasleengan sustatu nahi ditu ekintzailearen nolakotasunak (autonomia, sormena, bere buruarenganako konfiantza, taldean lan egiteko gaitasuna, plangintzak egiteko gaitasuna, erantzukizunak hartzea, erabakiak hartzeko gaitasuna eta abar), ezinbestekoak baitira edozein helburu lortzeko.

Xedeak izenburupeko 2.f artikuluan gai hori aipatzen da: “Ikasleek beren ikasketa erregulatzeko, beren gaitasun eta ezagutzetan konfiantza izateko, eta sormena, norberaren ekimena eta izpiritu ekintzailea garatzeko daukaten ahalmena garatzea.”

5. Tribucan proiektuak denborekin bat datorren metodologia bat erabiltzen du, eta teknologia berriak ere erabiltzen ditu ikasteko tresna gisa: ikasgela birtuala, simulazio jokoa, web orria eta abar.

Ikasgela birtuala erabiltzeak berritasun bat dakarkio unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari. Haren bitartez, jarduerak planteatzen dira; izan ere jarduera horiek diseinatuta daude ikasleek Interneten erabilera egokia egin dezaten, informazioa bilatu, aukeratu eta antolatzeari dagokionez.

Hezkuntzaren Lege Organikoak 1.n artikuluan honakoa ezartzen du hezkuntzaren printzipio gisa: “Ikerketa, esperimentazioa eta hezkuntzaren arloko berrikuntza bultzatu eta sustatzea.”

Hezkuntzaren etapa desberdinetan teknologia berriak erabiltzeari dagokionez, Hezkuntzaren Lege Organikoak aipamen ugari dauzka:

- 17.i artikulua ezartzen du Lehen Hezkuntzaren helburua dela “Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasteko erabiltzen hastea, eta kritikotasuna garatzea jasotzen eta prestatzen diren mezuak direla eta.”
- 23.e artikuluan honakoa ezartzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako helburu gisa: “Informazio iturrien erabileran oinarritzko trebetasunak garatzea, ezagutza berriak kritikotasunez eskuratu ahal izateko. Teknologien arloan oinarritzko prestakuntza bat eskuratzea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan.”

Ondorioa

Tribucan proiektua hezkuntzaren berrikuntzarako proiektu bat da, Hezkuntzaren Lege Organikoak ezarritako printzipioak eta Europako helburuak betetzen dituena.

Oinarritzko gaitasunak

Hezkuntzaren Lege Organikoaren berritasunetako bat oinarritzko gaitasunei curriculumeke arlo guztietan ematen zaien tratamendua da. Tribucan proiektuak, bere garapenean, gaitasun horiek ikasten laguntzen du.

Hezkuntzaren arloko Europako Batzordeak pertsonak bizitzan zehar ikasteko behar dituzten gaitasun nagusiak edo trebetasunak ezarri ditu, eta estatu kideak bultzatu ditu beren hezkuntza politikak norabide horretara zuzen ditzaten. Gaitasun horiei oinarritzkoak deitu izan zaie Hezkuntzaren Lege Organikoan. Desberdintasunen bat badago Europakoekiko, baina funtsean berak dira.

Gaitasun nagusi edo oinarritzotzat jotzen da eskari konplexuei erantzuteko eta egin beharrekoak modu egokian egiteko gaitasuna izatea. Trebetasun praktikoan, ezagutzen, motibazioen, balio etikoen, jarreraren, emozioen eta ekintza eraginkor bat lortzeko batera lan egiten duten bestelako osagai sozial batzuen nahasketa bat eskatzen du. Gaitasun nagusiak dira pertsonaren errealizazioaren, gizarteratzearen, herritartasun aktiboaren eta enpleguaren oinarria direnak.

Honakoak dira Tribucan proiektuan lantzen diren oinarritzko gaitasunak:

1. Komunikazio linguistikorako gaitasun

Komunikazio linguistikorako gaitasuna esaten denean, ahozko eta idatzizko komunikaziorako, ikasteko eta jokabideak eta emozioak erregulatzeko tresna gisa hizkuntza erabiltzeaz ari gara. Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeak bitartekaritza eta kulturen arteko ulermena bezalako gaitasunak edukitzea exijitzen du. Gaitasun hori lagungarri gertatzen da irudi pertsonal positiboa edukitzeko, eta gainerakoekiko eta ingurunearekiko harreman eraikitzaileak izatea sustatzen du. Komunikatzen ikastea beste pertsona batzuekin loturak ezartzea da; ezagutzen diren neurrian kontsiderazioa ea afektua sentiarazten diguten kultura berrietara hurbiltzea. Gaitasun linguistikoa garatzea funtsezkoa da gatazkak ebazten ikasteko eta elkarrekin bizitzen ikasteko.

Tribucan proiektuaren arabera, beharrezkoa da Internet bidez edo eskolako liburutegin lorturiko informazio-iturriak ulertuz irakurtzen jakitea; ikasgela birtualean planteaturiko jardueretako galderen erantzunak zuzentasunez idaztea, eta ahozko hizkuntza arintasunez erabiltzea taldean eta ikasgelan gure proposamenak defenditu ahal izateko. Gainera, ikasturtea hiru hizkuntza erabiliz garatu daiteke: gaztelania, euskara eta ingelesa.

2. Matematikarako gaitasuna

Informazioak sortu eta interpretatzeko, zenbakiak eta haien oinarriko eragiketak, sinboloak eta matematikazko adierazpideak eta arrazoitzeak erabiltzeko trebetasuna da; errealitateari buruzko alderdi kuantitatibo eta espazialak hobeki ezagutzeko eta eguneroko bizitzarekin eta lan munduarekin loturiko arazoak ebazteko trebetasuna.

Tribucan proiektuan matematikako gaitasuna enpresa-plana prestatzeko erabiltzen da: merkatuari buruzko azterketa, produkzio plana, finantziazioa eta abar.

3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreragina izateko gaitasuna

Mundu fisikoarekin elkarreragina izateko trebetasuna da, bai alderdi naturalei dagokienez, bai giza ekintzak sorturiko alderdiei dagokienez ere, halako moduan non errazago eginen duen gertakarien ulermena, ondorioen auresatea eta norberaren, beste gizon-emakumeen eta gainerako bizidunen bizitzaren baldintzak hobetzera eta babestera zuzendutako jarduera.

Tribucan proiektuan aztertzen diren gaien testuinguru geografiko, sozial eta ekonomikoa aztertzen dira ezer baino lehen

4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala

Informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatzeko eta hura ezagutza bihurtzeko trebetasuna da.

Alderdi desberdinak hartzen ditu, hasi informazioa eskuratzetik eta hautatzetik eta informazio hori euskarri desberdinetan erabili eta transmititzera bitarte, horren barne direla informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informatzeko eta komunikatzeko funtsezko elementu gisa erabiltzea.

Tribucan proiektuaren metodologia, funtsean, teknologia berrien erabilera oinarritzen da, eta behar diren baliabideak eskaintzen ditu ikasleak ongi erabil dezan Internetek eskaintzen dion informazioa.

5. Gaitasun soziala eta herritar gisako gaitasuna

Gaitasun honek bidea ematen du gizartean bizitzeko, bizi garen munduaren errealitate soziala ulertzeko eta herritartasun demokratikoaz baliatzeko. Banakako jokabide moduak biltzen ditu, eta jokabide modu horiek ahalmena ematen diete pertsonei gero eta gizarte anitzago batean bizitzeko, besteekin harremanak izateko, lankidetzan jarduteko, konprometitzeko eta gatazkei aurre egiteko. Gaitasun hori barneratzeak esan nahi du gauza izatea besteren tokian jartzeko eta desberdintasunak onartzeko, tolerantzia izatea eta gainerako baloreak, sinesmenak, kulturak eta historia pertsonala eta kolektiboa errespetatzea.

Tribucan proiektuak, bereziki, elkartasunaren izpiritua ikasturtean zehar ikastetxe bakoitzak garatuko duen elkartasunezko proiektu ekintzaile baten bitartez gauzatu nahi du. Hirugarren munduko eta mundu horretako jendearen benetako arazoak ere lantzen ditu, haien kulturak eta bizimoduak aztertzeaz gainera.

6. Gaitasun kulturala eta artistikoa

Gaitasun honek berekin dakar agerpen kultural eta artistikoak aintzat hartzea, ulertzea eta kritikotasunez baloratzea, eta agerpen horiek gozameneko eta norberaren aberasgarri gisa erabiltzea eta herrien kultur ondarearen zati gisa hartzea.

Tribucan proiektuak jendearen kultura, artea eta historia aztertzen ditu, bai eta jendearen bizimodua ulertzen laguntzen duten alderdi guztiak ere.

7. Ikasten ikasteko gaitasuna

Ikasten ikasteak esan nahi du ikasten hastea eta horri jarraipena emateko gauza izatea. Esan nahi du, halaber, zalantza kasuetan jokatzeko jakitea, ezagutza arrazionalaren logika asebeteko duten erantzunak bilatzen saiatuz. Berekin dakar arazo berarentzat balizko erantzun bat baino gehiago daudela onartzea eta motibazioa aurkitzea erantzun horiek ikuspegi metodologiko desberdinen bitartez aurkitzeko.

Tribucan proiektuak, ekintzailearen nolakotasunak aztertzearen bitartez, aukera ematen die ikasleei beren ikaskuntza antolatzeke, bai banakakoa, bai taldekoa; aukera ematen du, halaber, aztertutako egitatei buruz gogoeta kritikoa egiteko, eta aukera ematen du, azkenik, jarraikortasun eta motibazio jarrerak garatzeko eta norberaren buruarengan konfiantza izateko.

8. Autonomia eta ekimen pertsonala

Gaitasun honetan biltzen da bakoitzak bere irizpideen arabera jokatzeko modua izatea, eta gauza izatea egindako aukera garatzeko behar diren ekimen guztiak aurrera eramateko; halaber, egindako aukeraren erantzukizuna hartzea, bai arlo pertsonalean, bai arlo sozialean edo lan arloan ere.

Tribucan proiektuak enpresa solidario bat sortzea proposatzen du; haren bidez, ikasleak bere ekimenak erakusteko jarrera egokia garatu ahal izanen du.

Ondorioa

Tribucan proiektua lagungarri gertatzen da ikasleak bere helburu pertsonal, akademiko eta lanekoak lortzeko behar dituen oinarrizko gaitasunak hobetzeko.

Curriculumuma eta arloak

Tribucan proiektua zein arlotan erabil daitekeen:

Lehen hezkuntzan:

- Ingurumenaren ezagutza
- Herritar gisa heztea eta giza eskubideak
- Gaztelania edo, kasua bada, euskara edo ingelesa
- Hezkuntza artistikoa
- Matematika
- Tutoretza
- Diziplina arteko tratamendua
- ...

DBHn:

- Naturaren Zientziak
- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
- Herritartasunaren aldeko hezkuntza
- Hezkuntza etiko-zibikoa
- Hezkuntza plastikoa eta ikusizko hezkuntza
- Informatika
- Matematika
- Tutoretza
- Diziplina arteko tratamendua
- ...

Tribucan proiektua lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako arlo batzuetako curriculumetan ezarritako **helburuei** lotuta dago.

Lehen hezkuntzan, proiektuak hurrengo arloetako helburuak lantzen ditu:

Ingurumenaren ezagutza

- Adinaren arabera, testu zientifiko, historiko eta geografikoak ahoz eta idatziz zuzen ulertu eta adieraztea. Arloari dagokion berariazko hiztegia modu egokian eta zehaztasunez erabiltzea.
- Ingurune natural, sozial eta kulturalako elementu nagusiak identifikatzea, haien antolaketa, ezaugarriak eta elkarreraginak aztertuz eta esparru gero eta konplexuagoak menperatzeko bidean aurrera eginez.
- Taldeko jardueretan parte hartzea, jokabide arduratsu, eraikitzaile eta solidarioaz, betiere funtzionamendu demokratikoaren oinarritzko printzipioak errespetatuz.
- Ezaugarri propioak dituzten talde sozial eta kulturaletakoa izatea aitortzea eta aintzat hartzea, beste talde batzuekiko desberdintasunak eta giza eskubideak errespetatzeko beharra baloratuz.
- Gizakiak ingurunean duen esku-hartzearen agerpen batzuk analizatzea, eta esku-hartze hori kritikoki baloratzea, eguneroko bizitzan defentsa-jokabidea eta oreka ekologikoa berreskuratzearen eta kultur ondarea zaintzaren aldeko jokabidea hartuz.
- Ingurune natural, sozial eta kulturalako egitatea, kontzeptuak eta prozesuak interpretatzea, adieraztea eta islatzea, kode numerikoak, grafikoak, kartografikoak eta bestelakoak erabiliz.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

Hezkuntza artistikoa

- Ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena garatzea.
- Ezagutza artistikoak aplikatzea eguneroko errealitateko egoerak eta objektuak, bai eta artearen eta kulturaren munduko agerpen desberdinak ere, behatu eta aztertzerakoan, haien hobeki ulertzeko eta gustu propio bat osatzeko.
- Bilaketa pertsonal eta kolektiboko jarrera edukitzea, pertzepzioa, irudipena, ikerketa eta sentsibiltatea artikulatuz, eta produkzio artistikoak egiterakoan eta haietaz gozatzerakoan gogoeta eginez.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa.
- Irudia eta soinua erabiltzen diren ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aukera batzuk ezagutzea, eta haien erabiltzea behatzeko eta produkzio propioak egiteko, bai modu autonomoan, bai beste bitarteko edo material batzuekin konbinatuta.
- Produkzio artistikoak modu kooperatiboan egitea, funtzio desberdinak onartuz eta amaierako produktu on bat lortzeko gertatzen diren arazoak ebazteko laguntza emanez.

Herritartasunaren aldeko hezkuntza eta giza eskubideak (3. zikloa)

- Ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena garatzea. Arloari dagokion berariazko hiztegia modu egokian eta zehaztasunez erabiltzea, behin esanahia eraiki eta ondoren.

- Auto-estimua, afektibotasuna eta autonomia pertsonala garatzea besteekiko harremanetan; halaber, indarkeriaren aurkako eta estereotipo eta aurreiritzien aurkako jarrera bat garatzea.
- Trebetasun emozional, komunikatibo eta sozialak garatzea eguneroko bizitzan autonomiaz jarduteko, eta aktiboki parte hartzea taldeko harremanetan, eskuzabaltasunezko jarrerak eta jarrera eraikitzaileak erakutsiz.
- Bizikidetasunaren balioak eta arauak ezagutu eta aintzat hartzea, eta haien arabera jokatzeko ikastea.
- Aniztasuna bizikidetasunaren aberasgarri gisa aitortzea, eta norberarenaz besteko pertsonen eta populazioen ohitura eta bizimoduak errespetatzea.
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik, Haurren Eskubideen Konbentziotik eta Espainiako Konstituziotik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak ezagutzea, onartzea eta aintzat hartzea.
- Gizarte demokratikoen funtzionamendurako oinarritzko mekanismoak ezagutzea eta aintzat hartzea administrazioek zerbitzu publikoen berme gisa betetzen duten eginkizuna eta herritarrek haiei eusteko eta betebeharrak zibikoak betetzeko daukaten betebeharra.
- Zuzengabekeria eta bazterkeria egoerak identifikatu eta errefusatu, sentiberatasuna erakustea pertsona eta talde behartsuen beharrekiko eta elkartzasunezko eta indarkeriaren aurkako jokabideak garatzea.
- Ingurumenaren kontzientzia hartzea eta erantzukizunezko jarrerak garatzea ingurune hurbilekoen zainketan.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

Gaztelania edo, kasua bada, euskara edo ingelesa

- Jarduera sozial eta kulturalako testuinguru desberdinetan, gauzak ahoz eta idatziz egoki ulertzea eta adieraztea.
- Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren arauak buruzko ezagutzak erabiltzea modu egokian, koherentean eta zuzenean idazteko eta hitz egiteko, bai eta ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko ere.
- Ahozko hizkuntza modu egokian erabiltzea jarduera sozial eta kulturean, betiere errespetuzko eta lankidetzazko jarrera hartuz, norberaren sentimenduen eta ideien kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko.
- Komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa iritzi desberdinak lortzeko, interpretatzeko eta baloratzeko.
- Hizkuntza eraginkortasunez erabiltzea eskolako jardueran, informazioa bilatu, jaso eta prozesatzeko, bai eta arlo akademikoko testu propioak idazteko ere.
- Genero desberdinetako literatur testuak ulertzea (betiere, gaiari eta zailtasunari dagokienez, testu egokiak izanen dira). Hizkuntza literarioaren berariazko konbentzioak ezagutzen hastea.
- Ikasteko trebetasun eta abilezia praktikoak ikastea eta komunikatzeko ezagutzak eta estrategiak beste hizkuntza batzuetara transferitzea.

Matematika

- Ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena garatzea. Idatzizkoaren ulermena indartzea, matematikako testuak erabiliz. Matematikako arloari dagokion berriazko hiztegia modu egokian eta zehaztasunez erabiltzea.
- Matematikaren arloko ezagutza erabiltzea eguneroko bizitzako egitate eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, baloratzeko eta sortzeko, eta aitortzea haiek beste jakintza arlo batzuetan tresna gisa daukaten balioa.
- Ulertzeko edo haiekin eragiteko kalkuluko oinarrizko eragiketak egitea eskatzen duten ohiko inguruneke egoerak ezagutzea, eta haiek formulatzea adierazpen matematikoko forma errazak erabiliz, edo haiek ebaztea kasuko algoritmoak erabiliz; emaitzak baloratzeko eta jarraitutako prozesuak ahoz eta idatziz azaltzea.
- Era guztietako egoeretan behar izaten diren Matematikako trebetasunak ezagutzea eta aintzat hartzea, eta haietan segurtasuna hartzea, haien sormen-alderdiez, alderdi estetikoiez edo erabilpen-alderdiez gozatu ahal izateko, eta haiek erabiltzeak dauzkan aukeretan konfiantza edukitzea.
- Buruketak ebaztearen arloan, adimeneko eta neurketako kalkuluak egiteko tresna eta estrategia pertsonalak sortzea eta erabiltzea, bai eta espazioan orientatzeko prozedurak ere; kasuan kasu, haiek erabiltzearen alde onak erabakitzea eta emaitzen koherentzia baloratzeko.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa.
- Baliabide teknologikoak egoki erabiltzea bai kalkuluan, bai era guztietako informazioak landu eta irudikatzerakoan.
- Inguruneke fenomeno eta egoerei buruzko informazioa lortzeko, datu-bilketarako oinarrizko teknikak erabiltzea; informazio hori modu grafiko eta numerikoan adieraztea eta hari buruzko iritzi bat edukitzea.

DBHn, proiektuak hurrengo arloetako helburuak lantzen ditu:

Naturaren zientziak

- Naturaren zientzien estrategiak eta oinarrizko kontzeptuak ezagutu eta erabiltzea naturaren fenomenoak interpretatzeko, bai eta garapen tekniko eta zientifikoen ondorioak eta haien aplikazioak baloratzeko ere.
- Arazoak ebazteko, estrategia pertsonalak eta zientziaren prozedurekin bat datozenak aplikatzea: arazoa identifikatzea, arazoaren interesari buruz eztabaidatzea, hipotesia formulatzea, ebazteko estrategiak eta diseinu esperimentalak lantzea, haiek komunikatzea eta eginiko azterlanaren aplikazioak eta ondorioak aintzat hartzea, eta koherentzia orokorrak bilatzea.
- Eduki zientifikoa duten mezuak ulertzea eta adieraztea, horretarako ahozko eta idatzizko hizkuntza egokitasunez erabiliz; diagramak, grafikoak, taulak eta oinarrizko adierazpen matematikoak interpretatzea; gainerakoiei zientziaren arloko argudioak eta azalpenak komunikatzea.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea bai gai zientifikoei buruzko lanak oinarrizko eta orientatzeko, bai informazioa lortzeko eta ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

- Irizpide pertsonal eta arrazoituak lantzea gure garaiko oinarritzko gai zientifiko eta teknologikoei buruz, iturri desberdinetan lorturiko informazioak alderatuz eta ebaluatuz, gero haiek banaka edo taldeka aztertzeke.
- Natur zientzietako ezagutzak gizakiaren beharrak asetzeko erabiltzearen garrantzia ulertzea, eta parte hartzea aurrean dauzkagun tokiko arazoei eta arazo orokorrei buruz hartu beharreko erabakietan.
- Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten elkarrekinak ezagutzea eta aintzat hartzea, eta arreta berezia eskaintzea gaur egun gizateriak daukan arazoei eta konponbideak aurkitu eta aplikatzeko beharri, betiere arretaren printzipioari eutsita, hartara etorkizun iraunkor baterantz aurrera egiteko.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- Gizarte ekintzen buru agertzen diren prozesu eta mekanismoak identifikatzea, bai eta egitate politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko elkarrekinak ere, eta ezagutza hori erabiltzea egungo gizartearen bilakaera, gizon-emakumeek haietan betetzen duten papera eta haien arazo garrantzitsuenak azaltzen dituzten arazoien aniztasuna ulertzeke.
- Eskala desberdinetan identifikatu, kokatu eta aztertzea ingurune fisikoaren ezaugarri diren oinarritzko elementuak, haien artean gertatzen diren elkarrekinak eta giza taldeek espazioaren eta haren baliabideen erabileran ezartzen dituztenak, horrek guztiak dakartzan ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta ingurumenekoak baloratuz.
- Ulertzea lurraldea gizarteak bizi diren eta antolatzen duten ingurunean sorturiko elkarrekinaren emaitza dela.
- Aniztasun kulturala aintzat hartzea, beste kulturekiko eta gureekin bat ez datozen iritziekiko errespetua eta tolerantzia erakutsiz, betiere horiekiko iritzi kritikoa izateari uko egin gabe.
- Gizarte zientzien berariazko hiztegia onartu eta erabiltzea, ohiko hiztegian sartu eta hizkuntzaren zehaztasuna handitzeko eta komunikazioa hobetzeko.
- Iturri desberdinetako –horren barne direla ingurune fisikoa eta soziala, eskolako liburutegia, komunikabideak eta informazioaren teknologiak– ahozko informazioa, informazio grafikoa, estatistikoa eta kartografikoa bilatu, hautatu, ulertu eta erlazionatzea, eta informazio hori bilatzen den helburuaren arabera lantzea eta gainerakoei jakinaraztea modu antolatu eta ulergarrian.
- Taldeko lanak egitea eta eztabaidetan parte hartzea jarrera eraikitzaile, kritiko eta tolerantzarekin, iritziak behar bezala oinarrituz eta elkarrekinak baloratuz giza eta gizarte arazoak ebazteko beharrezkoa den bide gisa.
- Gizarte demokratikoen funtzionamendua ezagutzea, haien balioak eta funtsezko oinarriak aintzat hartuz; eskubideak eta askatasunak ere aintzat hartzea, ezin ukatuzko lorpen gisa eta bakerako baldintza gisa. Bazterkeriazko eta zuzengabekeriako jarrerak eta egoerak salatuko dira, eta elkartasuna erakutsiko da beste herriekiko, talde sozialekiko eta eskubideez gabetutako edo behar diren baliabide ekonomikoak galdutako pertsonetikiko.

Herritartasunaren aldeko hezkuntza (3. maila) **Hezkuntza etiko-zibikoa (4. maila).**

- Gizakiaren izatea bere banakako eta gizarteko dimentsioan aitortzea, norberaren identitatea, ezaugarriak eta bizipen pertsonalak onartuz, besteekiko desberdintasunak errespetatuz eta auto-estimua garatuz.
- Sentimenduak eta emozioak garatu eta adieraztea, bai eta taldean elkartasunezko jarrera tolerantarekin parte hartzea bideratzen duten trebetasun komunikatibo eta sozialak ere, eta elkarrizketa eta bitartekaritza erabiltzea gatazkak ebazteko.
- Ekimen pertsonala garatzea, erantzukizunak onartuz eta errespetuan, lankidetzan eta indarkeria, estereotipoak eta aurreiritziak arbuiatzean oinarrituriko bizikidetasun eta partaidetza motak praktikatzeko.
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik, Haurren Eskubideen Konbentziotik eta Espainiako Konstituziotik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak nagusiak ezagutzea, onartzea eta positiboki aintzat hartzea, haien oinarritako balioak identifikatuz eta haiek onartuz jokabide pertsonal eta kolektiboak eta errealitate sozialak etikoki baloratzeko irizpide gisa.
- Egungo gizartearen aniztasuna identifikatzea, eta aitortzea dibertsitatea aberasgarria dela bizikidetasunerako, eta pertsona guztien eskubideen eta aukeren berdintasuna defendatzea, eta sexua, jatorria, sinesmenak, gizarte-desberdintasunak, orientazio afektiboa eta sexuala edo beste edozein motatako orientazioa direla-eta sorturiko zuzengabekeriazko eta bazterkeriako egoerak errefusatzeko, gizakiaren duintasuna urratzen dutelakoan eta bizikidetasunaren nahasgarriak direlakoan.
- Emakumeen eskubideak aitortzea eta sexuen arteko desberdintasuna eta bi sexuetakoen pertsonen eskubideen berdintasuna aintzat hartzea; gizonen eta emakumeen artean bazterkeria dakarten estereotipoak eta aurreiritziak arbuiatzea.
- Bizitza politikoari eta herritarren bestelako partaidetza bidei –kooperazioa, elkartegintza eta boluntarioak– garrantzia ematea.
- Giza eskubideen urratzea, pobrezia eta desberdintasuna dakarten arrazoiak ezagutzea, bai eta gatazka armatuen eta azpigarapenaren artean dagoen erlazioa ere; mundu zuzenagoa erdiesteko bakea, segurtasuna eta partaidetza aktiboa lortzera bideraturiko ekintzak baloratzeko.
- Nork bere burua herritartasun orokorreko kideatzat hartzea. Errespetu kritikoa izatea gureaz besteko ohitura eta bizimoduekiko, eta elkartasunezko jokabideak erakustea pertsona eta kolektibo behartsuekiko.
- Teoria etiko garrantzitsuak identifikatu eta aztertzea, gaurko munduko gatazka sozial eta moral garrantzitsuenak ezagutzea eta jarrera kritikoa izatea komunikabideen bitartez transmititzen diren ereduak.
- Pentsamendu kritikoa eskuratzea; irizpide propioa eta trebetasunak garatzea eztabaidetan jarrerak defendatzeko, betiere argudio dokumentatu eta arrazoiak erabiliz; besteen arrazoiak eta argumentuak aintzat hartzea.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea bai arloari buruzko lanak oinarritzeko eta orientatzeko, bai informazioa lortzeko eta ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa ere.

Hezkuntza plastikoa eta ikusizko hezkuntza

- Balio kultural eta estetikoak aintzat hartzea, haien edukiak identifikatuz, interpretatuz eta baloratuz; haiek kultur aniztasunaren zati gisa ulertzea, eta haiek errespetatzeko, zaintzeko eta hobetzeko laguntza ematea.
- Gauzak sormenez adieraztea, hizkuntza plastiko eta ikusizkoaren tresnak erabiliz, eta haiek jakintzaren beste arlo batzuekin lotzen jakitea.
- Teknika plastiko eta ikusizko desberdinak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea norberaren sormen lanetan aplikatzeko.
- Beste pertsona batzuekin harremanak izatea, eta taldeko jardueretan parte hartzea malgutasunez eta erantzukizunez, betiere elkarrizketa, lankidetzeta eta komunikazioa erraztuz.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea bai arloari buruzko lanak oinarritzeko eta orientatzeko, bai informazioa lortzeko eta ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

Informatika

- Sarean eskuragarri dauden baliabideak bilatu eta hautatzea, eta haiek norberaren produkzioetan txertatzea; aintzat hartzea jabetza intelektuala errespetatzearen garrantzia eta hura erabiltzea berariaz baimentzen duten iturrietara jotzearen komenigarritasuna.
- Sare sozialetan integratzeko tresnak ezagutu eta erabiltzea, eta norberaren gaitasunak jartzea haiek hazi daitezen; errespetu, parte-hartze, ahalegin eta lankidetzeta jarrerak edukitzea, produkzio kolektiboak sortu ahal izateko.
- Periferikoak erabiltzea irudiak, testuak eta soinuak hartu eta digitalizatzeko, eta irudi finko, soinu eta mugimenduan dagoen irudiaren tratamendu digitalerako programen funtzio nagusiak erabiltzea; horiek guztiak integratzen jakitea multimedia produkzio txikiak sortzeko, adierazpen, komunikazio nahiz ilustrazio xedeekin.
- Edozein iturritatik lorturiko informazio testual, numeriko eta grafikoa erabiltzea eduki propioak sortzeko eta haiek webean argitara emateko, elkarreragina bideratzen duten bitartekoak (galdetegiak, inkestak, bitakorak eta abar) eta multimedia elementuak sartzera errazten duten formatuak erabiliz; betiere, hori guztia erabiltzaileen esku jartzeko modua erabaki beharko da.
- Webean argitara emandako edukiak partekatzeko dauden aukeren zentzua eta oihartzun sozialak ezagutzea eta baloratzea, eta haiek aplikatzea norberaren produkzioak zabaltzeko.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak eta haien erabilerak dauzkan ondorioak aintzat hartzea.

Gaztelania edo, kasua bada, euskara edo ingelesa

- Jarduera sozial eta kultureko testuinguru desberdinetan, gauzak ahoz eta idatziz argitasunez, zehaztasunez koherentziaz eta egokitasunez adieraztea.
- Ahozko hizkuntza jarduera sozial eta kulturean modu argi, zehatz eta arinean eta bat-batekotasunez erabiltzea, egoera eta funtzio desberdinetarako egokia den moduan, betiere errespetuzko eta laguntzazko jarrera edukiz.
- Hizkuntza eraginkortasunez erabiltzea eskolako jardueran, informazioa hautatu, jaso eta prozesatzeko, bai eta arlo akademikoko testu propioak idazteko ere.

- Komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazio eta iritzi desberdinak lortzeko, interpretatzeko eta baloratzeko.
- Irakurketa, arlo desberdinetan (literaturarena, zientifikoa soziala...), gozamen iturria, aberasgarria eta mundua ezagutzeko bidea izan dadin egitea, irakurtzeko zaletasuna finkatuz.
- Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren arauetara buruzko ezagutzak nolabaiteko arintasunez aplikatzea ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez idazteko eta hitz egiteko (erregistro linguistiko desberdinak erabiltzea).
- Hizkuntzen erabilera sozialak aztertzea, balio-juzkuak eta aurreiritzi klasista, arrazista edo sexistak dakartzaten estereotipo linguistikoak saihesteko. Ikasteko prozesuei buruz gogoeta egitea eta ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzea beste hizkuntza batzuetara.

Matematika

- Gogoetazko pentsamenduetarako gaitasuna hobetzea eta hizkuntzari eta argumentatze moduei adierazpen eta arrazoitze matematikoaren moduak gehitzea, bai prozesu matematiko edo zientifikoetan, bai giza jardueraren arlo desberdinetan.
- Termino matematikoekin formulatu daitezkeen egoerak ezagutu eta planteatzea; haiei ekiteko estrategia desberdinak lantzea eta erabiltzea eta emaitzak aztertzea baliabide egokienez baliatuz.
- Errealitatea hobeki interpretatzea bideratzen duten alderdiak kuantifikatzea: informazioa biltzeko teknikak eta neurketa-prozedurak erabiltzea, datuei buruzko analisiak egitea zenbaki mota desberdinak erabiliz eta egoera bakoitzerako egokiak diren kalkuluak hautatuz.
- Komunikabideetan, interneten, publizitatean eta bestelako informazio iturrietan dauden elementu matematikoak (datu estatistikoak, geometrikoak, grafikoak, kalkuluak eta abar) identifikatzea; elementu matematiko horiek betetzen dituzten funtzioak kritikoki aztertzea, eta haien ekarpena baloratzea mezuak hobeki ulertzeko.
- Eguneroko bizitzan gertatzen diren forma eta harreman espazialak identifikatzea; inplikaturiko propietate eta erlazio geometrikoak aztertzea, hartara harmonia eta edertasun modu batzuetarako sentiberatasuna garatzea erraztuz, sormena eta irudimena estimulatzeko bidenabar.
- Arazoak ebaztea jarduera matematikoak berezkoak dituen modu batzuk erabiliz; esate baterako, aukeren araketa sistematikoa, hizkuntzaren zehaztasuna, ikuspuntua aldatzeko malgutasuna edo konponbideak bilatzeko jarraitutasuna; eta haien baliozkotasuna aitortzea eguneroko bizitzako egoera gatazkatsuetan.
- Estrategia pertsonalak lantzea egoera zehatzak analizatzeko eta arazoak identifikatu eta ebazteko, betiere baliabide eta tresna desberdinak erabiliz eta erabilitako estrategien komenigarritasuna baloratzuz, emaitzen azterketaren arabera eta haien zehaztasunaren edo hurbiltasunaren arabera.
- Jarrera positiboa izatea arazoak ebazteko eta haiei arrakastaz aurre egiteko norberaren gaitasunean konfiantza erakustea, eta auto-estima maila egokia eskuratzea, matematikako sormenezko eta manipulaziozko alderdiez eta alderdi estetiko eta utilitarioez gozatu ahal izateko.

- Matematikako ezagutzak integratzea arlo desberdinetatik eskuratzen diren jakintzen multzoan, halako moduan non sormenez, modu analitikoan eta modu kritikoa erabili ahalko diren.
- Matematika gure kulturaren osagai gisa aintzat hartzea, bai ikuspuntu historiko batetik bai egungo gizartean duen betebeharraren ikuspuntutik, eta eskuratutako matematika-gaitasunak aplikatzea fenomeno sozialak aztertu eta baloratzeko: kultur aniztasuna, ingurumenarekiko errespetua, osasuna, kontsumoa, generoko berdintasuna edo bizikidetasun baketsua.

Ondorioa

Tribucan proiektuaren helburuak bat datoz lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako arloetako curriculumetan ezarritakoekin.

Ikastetxeko hezkuntza proiektua

Ikastetxeek **Tribucan** proiektua sartu ahal dute hezkuntza proiektuan, legediak ezarritakoaren arabera:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. II. kapitulua. Zentroen autonomia.

120. artikulua. Xedapen orokorrak.

2. Ikastetxeek autonomia izanen dute **hezkuntza** proiektua eta kudeaketa proiektu bat landu, **onetsi eta exekutatzeko**, bai eta ikastetxearen antolamendu eta funtzionamendu arauak ere.

121. artikulua. Hezkuntza proiektua.

1. Ikastetxeko hezkuntza proiektuak jarduteko balioak, helburuak eta lehentasunak jasoko ditu. Halaber, klaustroak finkatu eta onetsi behar dituen eta hezkuntza administrazioak **ezarritako curriculumen zehaztapena jasoko du**, bai eta baloreetako hezkuntzako arlo, gai edo moduluetan eta beste ikaskuntza batzuetan zeharkako tratamendua ere.

3. Hezkuntza administrazioei dagokie esparru orokor bat ezartzea, ikastetxe publikoek eta itunpeko ikastetxe pribatuak **beren hezkuntza proiektuak egin ditzaten**; proiektu horiek argitara emanen dira, hezkuntza erkidegoak, oro har, ezagut ditzan. Halaber, hezkuntza administrazioei dagokie curriculumak garatzen laguntzea, irakaskuntza programazioko eredu irekien eta material didaktikoen lanketa erraztuz, ikasleen eta irakasleen behar desberdinei erantzuna emateko.

5. Ikastetxeek hezkuntza-konpromisoak sustatuko dituzte familien edo legezko tutoreen eta ikastetxearen beraren artean; konpromiso horietan gurasoek,

irakasleek eta ikasleek ikasleen emaitza akademikoak hobetzeko garatuko dituzten jarduerak jasoko dira.

6. Itunpeko ikastetxe pribatuen hezkuntza proiektua, edonola ere publiko egin beharko dena, titularrak berak ezarriko du eta lege honetako 115. artikuluan jasotako izaera bera bilduko du.

132. artikulua. Zuzendariaren eskumenak.

Honako hauek dira zuzendariaren eskumenak:

- B. Ikastetxeko jarduera guztiak zuzendu eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta eskola kontseiluari dagozkien eskumenak ezertan kendu gabe.
- C. Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntza arloko berrikuntzak sustatzea eta ikastetxeko hezkuntza proiektuko helburuak lortzeko planak bultzatzea.

[Martxoaren 19ko 24/2007 FORU DEKRETUA, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculuma ezartzen duena.](#)

6. artikulua. Curriculuma

- Hezkuntza-etapa honetako oinarrizko gaitasunek, helburuek, edukiek, metodo pedagogikoez eta ebaluazio irizpideek osatzen duten multzoa da Lehen Hezkuntzako curriculuma.
- Ikastetxeek foru dekretu honetan eta haxe garatzeko arauetan ezarritako Lehen Hezkuntzako curriculuma garatu eta osatuko dute. Zehaztapen hori Hezkuntza Proiektuaren zati izanen da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 121.1 artikuluan ezartzen denaren arabera

[Martxoaren 19ko 25/2007 FORU DEKRETUA, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculuma ezartzen duena.](#)

7. artikulua. Curriculuma

- 1. Hezkuntza-etapa honetako oinarrizko gaitasunek, helburuek, edukiek, metodo pedagogikoez eta ebaluazio irizpideek osatzen duten multzoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma.
- 2. Ikastetxeek foru dekretu honetan eta haxe garatzeko arauetan ezarritako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma garatu eta osatuko dute; zehaztapen hori hezkuntza proiektuaren zati izanen da.

Ondorioa

Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatzen direla, jo dezakete Tribucan proiektua curriculumaren garapena dela, eta hezkuntza proiektuan sar dezakete.

Hobekuntza plana

Tribucan proiektua lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeetako hobekuntza planetan sartu ahalko da, zeren eta, esan den bezala, lagungarria baita hurrengo oinarrizko gaitasunak hobetzeko: (Enlace con el apartado Competencias Básicas de este documento)

- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna
- Matematikarako gaitasuna
- Ezagutzeko eta mundu fisikoarekin elkarreragina izateko gaitasuna
- Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala
- Gaitasun soziala eta herritar gisako gaitasuna (hezkuntza-balioak)
- Gaitasun kulturala eta artistikoa
- Ikasten ikasteko gaitasuna (hezkuntza-balioak)
- Autonomia eta ekimen pertsonala (hezkuntza-balioak)

Ikastetxeen hobekuntza planak oinarrizko eskumenen hobekuntzara begira egin behar dira, gaur arte Nafarroako ikastetxeetan garatu diren bezala.

Arestian erakutsi dugun bezala, Tribucan proiektuak oinarrizko gaitasunen ikaskuntza bultzatzen du, eta horregatik ikastetxeko hobekuntza planean sar daiteke.

Ikastetxearen hobekuntza plana urtero zehazten da urteko programazio orokorrean. Tribucan proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek ikasturte honetarako programaturiko jarduerak urteko programazio orokorrean sartu ahalko dituzte eta ikasturte amaierako oroitidazkian ebaluatu ahalko dituzte.

Ondorioa

Tribucan proiektuaren diziplina arteko izaera eta oinarrizko eskumenen tratamendua dela eta, ikastetxeko hobekuntza planerako ekarpen gisa har daiteke.

Tutoretza eta hezkuntza orientazioa

Esan izan den bezala, **Tribucan** proiektuak, funtsean, Nafarroako ikasleek arlo pertsonalean, akademikoan eta lanekoan beren buruari ezarritako helburuak arrakastaz lortzeko behar diren hezkuntza-balioak zabaldu nahi ditu.

Balio horiek tutoretzaren eta hezkuntza orientazioaren eremuan ere landu daitezke, zeren eta helburua baita ikasleek ezaugarri eta trebetasun pertsonal eta sozial batzuk garatzea; bestalde, ezaugarri eta trebetasun horietako batzuk beste esparru batzuetan ere langai izaten dira. Hona:

Tutoretza eta hezkuntza orientazioa

Nolakotasun pertsonalak	Trebetasun sozialak	Zuzendaritzarako trebetasunak
<ul style="list-style-type: none">• Ekimena• Autonomia• Nork bere burua gainditzeko izpiritua• Iraunkortasuna• Norberaren kontrola• Norberaren buruarengan konfiantza izatea• Kritikotasuna• Sormena• Arriskua onartzea• Malgutasuna• Ikertzeko eta berritzailea izateko izpiritua• Erantzukizuna• Arrakasta izateko motibazioa• Izpiritu positiboa• Erabakitze gaitasuna• Auto-diziplina	<ul style="list-style-type: none">• Taldeko lana• Lankidetzarako jarrerak• Komunikatzeko gaitasuna• Ingurunearekin erlazioa izateko gaitasuna• Gainerako beharretarako sentiberatasuna• Norberaren ideiak besteen aurrean azaldu eta defendatzeko gaitasuna	<ul style="list-style-type: none">• Plangintza, erabakiak hartzea eta erantzukizunak hartzea• Arazoei aurre egiteko eta konponbideak aurkitzeko gaitasuna• Pertsuasiorako gaitasuna• Lidergorako gaitasuna• Baliabideak antolatu eta optimizatzeko gaitasuna

Ondorioa

Ekintzailea izateko hezkuntza-balioak tutoretzaren eta hezkuntza orientazioaren esparruan landu daitezke eta Tribucan proiektuan programaturiko prestakuntzaren bitartez familiak inplikatu ditzake.

Tribu hezitzailea

Tribucan proiektua hezkuntza proiektu berritzaile eta aitzindaria da, zeren eta tribu hezitzailearen edo gizarte hezitzailearen kontzeptua arlo teorikoan landu badira ere, oso esperientzia gutxi eraman dira praktikara.

José Antonio Marinak gidaturiko [Hezkuntza mobilizazioa](#), mugimenduaren bitartez, propaganda kanpaina bat abiarazi da, gizarteak haurren eta nerabeen hezkuntzan duen erantzukizunaren kontzientzia har dezan.

Argi dago familia izan ohi dela neska-mutilen hezkuntzaren protagonista jokabide-eredu batzuen bitartez eta gizarte-balioak transmititzen duen ama hezitzailearen eginkizunari esker.

Emakumea lan munduan sartzearekin, oso aldaketa azkarrak gertatu dira bizimoduetan; bestalde, oso denbora gutxi edukitzen da seme-alabentzat, telebistak erakarmen indar handia hartu du, ordenagailuen eta bideo-jokoen erabilera gehiegizkoa gertatzen ari da...; horrek guztiak berekin ekarri du hezkuntza soilik eskola-eremuaren esku gelditzea.

Gaur egun, eskolak guztiz hartzen du bere gain ez dagokion erantzukizun bat. Kontua ez da erruak kanpora botatzea, baizik eta gure seme-alaben jokabidean zuzenean edo zeharka eragina duten ente sozial guztiak inplikatzeko, ondokoak, besteak beste, transmititu ditzaten: balio demokratikoak, lan pertsonalaren garrantzia, erantzukizuna eta lana ongi egiteko gustua izatea.

José Antonio Marina, proiektuaren babesleak, [movilización educativa](#), izenburupeko web orriaren aurkezpenean, ondoko gogoeta egiten du Tribucanen filosofia laburbiltzeko:

“Hezkuntzaren aldeko kezka unibertsalak aitzakien sistema bat sortu du, eta haren arabera errua beti auzoarena izaten da. Gurasoen ustez, eskola da erruduna; eskolaren ustez, gurasoak; guztien ustez, telebista; telebistaren ustez, ikus-entzuleak... Azkenean gobernuari eskatzen zaizkio konponbideak, eta hark herritarrei erantzukizunez jokatzeko eskatu. Eta berriz hasten gara. Aitzakien gorpil zoro horretan, biraka egon gintezken azken judiziora arte.

Aitzakien gorpil zoro horretan, biraka egon gintezken azken judiziora arte. Bururatzen zaidan konponbide bakarra da ez itxarotea bestek arazoari konponbidea eman arte, baizik eta nire buruari honako galdera egitea: (Zer egin dezaket nik horri konponbidea emateko? ¿qué puedo hacer yo para solucionarlo?). Galdera hori askotan entzun dut, eta nire ustez, laguntzeko prest dauden milaka pertsonen kezka, eskuzabaltasuna, energia eta talentua aprobetxatuko bagenitu, aldaketa kultural onuragarri bat lortuko genuke, eta horixe da hezkuntza hobetzeko behar duguna. Horixe da hezkuntza mobilizazioaren helburua –ikusten denez, helburu baikorra–. Kontua da hezkuntzaren, familiaren edo eskolaren mundua inguratzen duten biktimismoa, ezintasuna eta giro dramatikoa gainetik kentzea.